



GRALa 2017/18 ikasleen gai proposamenak bideratzeko jarraibideak

Gai proposamena GAUR en bidez egingo da, ezarritako epean.


- 1- *Karrera amaierako proiektuak – Gradu amaierako lanak* atalean sartu.



- 2- *Proposamenak* eta *Berria* ataletan egin klik.



3-Proiektu/lan proposamenaren datuak orria irekiko da.



Atalak hemen adierazi bezala beteko dira:

- **Izenburua eta Titulazioa**: dagokiona jarri (500 karaktereko muga).
- **Azalpena**: zein sailetara zuzentzen dugun proposamena, **ikergaia** zein den zehaztuko da eta gaiaren **garrantziaren justifikazioa** egingo da (2000 karaktereko muga).
- **Egin beharreko lanak**: aurreikusten den metodologia azalduko da eta oinarrizko bibliografiaren bost aipamen (2000 karaktereko muga).
- **Helburuak**: aipatu gutxienez hiru helburu eta aurreikusten diren bi ondorio.
- **Orduak guztira***: 300
- **Iraupena***: 2017/6/1-2018/9/30
- **Hizkuntza**: euskara edo gaztelania aukeratu.
- **Zuzendaria**: atal hau soilik beteko dute Eskolako Araudian 4.2. artikuluaaren bigarren paragrafoan jasotako baldintza betetzen dutenek (kolaborazio beka batekin lotuta prestatzea GRALa), gainontzekoek EZ BETE atal hau.

*Datu hauek berdina dira guztiontzat.